Espediente-zenbakia: 2024018 Harmonizatua

Kontratazioaren helburua: EAEko (Euskal Autonomia Erkidegoa) enpresetan "Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen" sistema ezartzeko zerbitzuak emateko Esparru Akordioa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan - Europar Batasuneko NextGenerationEU funtsek finantzatuta.

Dokumentua: Preskripzio teknikoen plegua.

1. SARRERA

Euskadiko eraldaketa digitala bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren oinarrizko tresna da "Euskadi 2025 Eraldaketa Digitaleko Estrategia", eta 2021eko martxoaren 30ean onartu zuen Gobernu Kontseiluak.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak bultzatutako estrategia honek eraldaketa digitalerako eredu berri bat ezartzen duen erronkari lagunduko dio, parte hartzen duten eragile guztien laguntza sinergiko, proaktibo eta koordinatuarekin.

Erakunde guztien egungo eta etorkizuneko hazkundea bultzatzera bideratuta daude teknologia digitalak, baita funtzio, gaitasun multzo eta laneko profil berrien eskaria handitzera ere. Automatizazioaren gorakadaren aurrean, enpresek haien lan-indarra berregituratu behar dute. Horretarako, profil tradizionalenak gutxitu eta horien ordez profil teknologikoagoak txertatu behar dituzte, edo azpikontratazioa areagotu behar dute lan espezifikoetarako.

Enpresa-ikuspegian oinarrituta, saileko eta erakunde osoko helburu digitalak eskuratzeko langile bakoitzak zer bide jarraitu behar duten neurtzea gomendatzen da. Beharrezkoa da profesionalen maila digitala ezagutu eta kudeatzea, konpetentzietan oinarritutako prestakuntza egokia eta erabilgarria diseinatzeko. Azterketak barne hartu behar ditu ezagutza teknikoak, tresnen erabilera eta ingurune digitalera egokitzeko beharrezko trebetasunak, hala nola ingurune digitaletako informazioaren kudeaketa, elkarlana, lankidetzarako eta sarean lan egiteko teknologia erabiltzen duten taldeen kudeaketa, ekonomia digitalean murgilduta dauden bezeroen arreta edo zibersegurtasuna. *Soft* konpetentzia horietako batzuek, gaitasun digitalekin lotuta, agerian uzten dute pertsonen gaitasunak gero eta gehiago direla zeharkakoak, multifuntzionalak eta malguak.

Ildo horretan, SPRIk GAITASUN DIGITAL PROFESIONALAK izeneko laguntza-programa bultzatu du azken ekitaldietan. Programa horrek Europako DIGCOMP ereduaren 21 gaitasun digitalak lantzen ditu, 5 arlotan multzokatuta (informazioa, komunikazioa, edukiak sortzea, segurtasuna eta arazoak konpontzea). DIGCOMP eredu hori IKANOS metodologiaren bidez aplikatu da Euskadin. Halaber, hemen eskura daiteke IKANOS metodologiari buruzko informazioa: https://ikanos.eus/.

Gaitasun digital profesionalen laguntza-programaren edizioen arrakasta ikusita, SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIAk (aurrerantzean, "**SPRI**") egoki ikusi du berariaz ekimen berri bat garatzea: "ZIBERSEGURTASUNEKO Konpetentzia Digital Profesionalak". Horretarako, SPRIk gaitasun digital profesionalen laguntza-programa berri baten lehen ediziorako deialdia egin nahi du, ZIBERSEGURTASUNEKO gaitasunak modu esklusiboan lantzeko (aurrerantzean, "**Laguntza Programa**" edo "**Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen Laguntza Programa**"), horrela, IKANOS metodologia EAEko enpresetan ezartzea sustatzen jarraitzeko, zibersegurtasunaren alorreko konpetentzien bertikala garatuz.

Europako Batzordeak bultzatutako gaitasun digitalen Europako eredua, *Digital Competences Framework* izenekoa (aurrerantzean, "**DIGCOMP**"), jarraitzen du gaitasun digitalen IKANOS ereduak. Europako hiritarren gaitasun digitalen garapenerako esparru xehea da DIGCOMP. Ingurune digitaletan lehiakorra izateko behar diren gaitasun guztien deskribapen xehea ematen du esparruak. Ezagutzetan, trebetasunetan eta jarreretan oinarrituta deskribatzen ditu, eta gaitasun bakoitzaren barruko mailak zehazten ditu.



DIGCOMPek gaitasun digitalaren osagai garrantzitsuenak identifikatzen ditu, aurreko grafikoan laburtzen diren bost eremu eta 21 gaitasun espezifikoetan. Eskumen horien artean, zibersegurtasunak DIGCOMP ereduko 21 eskumenak biltzen dituzten 5 eskumen-eremuetan eragiten du, eta, zehazki, honako hauetan:

- Informazioa eta datuak bilatzea eta kudeatzea.
- Komunikazioa eta lankidetza.
- Eduki digitalak sortzea.
- Segurtasuna.
- Problemak ebaztea.

DIGCOMP ereduari buruzko informazio gehiago hemen: https://ec.europa.eu/social/main.jsp?langId=en&catId=89&newsId=10193&furtherNews=yes

Hausnarketa horien ildotik, eta "Euskadi 2025 Eraldaketa Digitalerako Estrategia" ren jarduera-ildoak garatze aldera, Gaitasun Digital Profesionalen eremuarekin lotuta, eta, zehazkiago, Zibersegurtasunaren esparruarekin lotuta, beharrezkoa da honako eskumen hauek bultzatzea, honako eremu hauek lantzen baitituzte:

- **Zibersegurtasuna posta elektronikoaren erabileran**: erasoen eraginkortasuna nabarmen handitzen da gizarte-ingeniaritzaren bidez erabiltzaileak mezu elektroniko kaltegarrien bidez engainatzeko, eta horrek segurtasun korporatiboaren paradigma aldatu du. Gaur egun, firewalls perimetralak eta Internetekiko esposizioan dauden zerbitzuen sekurizazioa ez dira nahikoak erakunde bat kanpoko erasoetatik babesteko. Erasotzaileek badakite giza faktoreaz baliatzea dela metodorik eraginkorrena erakunde batean ezarritako segurtasun-irtenbide tekniko gehienak saihesteko. Horrela, beharrezkoa da zibersegurtasuneko gaitasun digitalak hobetzea, eta, bereziki, posta elektronikoaren erabileran.
- **Nabigazio segururako gaitasun digitalak**: Interneten informazioa bilatzeko segurtasun-irizpideak indartzea.
- **Zibersegurtasuna gailu elektronikoak babesteko**: pasahitz sendoak erabiltzea, zalantzazko WIFIetara ez konektatzea gure gailuak arriskuan ez jartzeko, gailu guztiak aldian-aldian eguneratzea, zalantzazko orrien fitxategiak ez deskargatzea, etab.
- **Datu pertsonalak eta pribatutasuna babestea**. Webgunean datu pertsonalak edo profesionalak argitaratzeak arriskuan jar ditzake gure segurtasuna eta lan egiten dugun konpainiarena. Pertsonak eta enpresak zaurgarri egiten ez dituzten datuak argitaratzen ikasi behar dugu.
- **Eduki faltsua identifikatzea**. Albisteak eta informazio faltsua identifikatzen ikasi behar da, iturriak identifikatzen eta horien fidagarritasuna baloratzen ikasi behar da.
- **Pertsonen ongizate fisikoa eta mentala babestea, "ongizate digitala" bermatzeko**. Zibersegurtasuneko gaitasun digitalak landu behar dira, osasun psikologikoa eta fisikoa babesten laguntzen dutenak.
- **Zibersegurtasuna arazoak konpontzeko**. Gaitasun digitalak garatzea da helburua, arriskuak prebenitzen eta gure enpresaren zibersegurtasuna arriskuan dagoela uste dugun egoeretan erantzuten laguntzeko. Gure osotasuna edo enpresarena arriskuan egon daitekeela identifikatzen dugun egoeretan erantzuten ikasi behar dugu.

2. KONTRATAZIOAREN HELBURUA

IKANOS metodologiaren bidez “Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen” sistema bat ezartzeko zerbitzuak kontratatu nahi dizkie SPRIk, honakoetan espezializatuta dauden erakundeei: prestakuntza, giza baliabideak eta/edo zibersegurtasuneko gaitasun digitalak. IKANOS metodologiaren bidez

"Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen" sistemak ezartzeko zerbitzu orokorrari "**Zerbitzuak**" deituko diogu aurrerantzean, eta IKANOS metodologiaren bidez "Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen" sistemak ezartzeko zerbitzuetako bakoitzari "**Zerbitzua**" deituko diogu aurrerantzean.

Zerbitzu hau LANKIDETZA HITZARMENAREN BARRUAN dago, DIGITALIZAZIOKO ETA ADIMEN ARTIFIZIALEKO ESTATU IDAZKARITZAREN RETECH (ESPEZIALIZAZIO TEKNOLOGIKOKO LURRALDE SAREAK) DEIALDIAREN EREMUAN. Deialdi hori 2023ko azaroan formalizatu zuten, besteak beste, SPRI-ENPRESEN GARAPENERAKO EUSKAL AGENTZIAK eta INCIBEk (ESPAINIAKO ZIBERSEGURTASUNEKO INSTITUTU NAZIONALA, M.P., S.A.).
Lehiaketa publiko honen esleipendunek, eman beharreko Zerbitzuen baitan, gauzazko laguntza eman beharko diete Euskal Autonomia Erkidegoan (aurrerantzean, **"EAE"**) kokatuta dauden enpresei bideratutako Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen Laguntza Programaren onuradun gisa aukeratutako enpresei. SPRIk egingo du laguntza-programa horren deialdia. Laguntza horien bolumena eta ezaugarriak emakidaren ebazpenetan zehaztuko dira, eta onuradunak haren alde emandako laguntza onartzen duenean.

Hala, SPRIk ez du bere gain hartuko inolako gastu-konpromisorik lizitazio honekin lotuta. Aldiz, aipatutako gastua honakoen araberakoa izango da: lehenik eta behin, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko den Zibersegurtasuneko Gaitasun Digitalen Laguntza Programaren deialdiaren araberakoa eta, bigarrenik, zerbitzuen benetako prestazioaren araberakoa, plegu honetan deskribatzen den moduan; hau da, laguntza-programaren enpresa onuradunei emandako zerbitzuen araberakoa.

Hortaz, zibersegurtasunean, prestakuntzan, giza baliabideetan eta/edo zibersegurtasuneko gaitasun digitaletan espezializatutako erakunde espezializatuak hautatzea da plegu honen helburua eta, era berean, Esparru Akordioaren garapena eta zerbitzuak emateko kontratuen formalizazioa zuzenduko dituzten preskripzio teknikoak definitzea. Esparru Akordio hori sinatu ondoren, hautatutako kontratistek IKANOS metodologiari buruzko prestakuntza jasoko dute, Laguntza Programaren enpresa onuradunei Zerbitzua emateko helburuz, eta zehatzago, Zibersegurtasunaren arloan garatutako tresnen inguruko prestakuntza jasoko dute; hala, enpresetan diagnostikoak egiteko oinarri gisa izango dute.

Zerbitzuak emateko, Esparru Akordiotik eratorritako hainbat kontratu egingo dira: Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen Laguntza Programaren onuradun bakoitzeko kontratu bat. Kontratu horiek SPRIk eskatuta gauzatuko dira, Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen Laguntza Programara aurkeztutako laguntza-eskaeren aldeko ebazpenak eman ahala.

Esparru Akordioaren eta kontratu bakoitzaren xede diren jarduerak EAEren barruan gauzatuko dira.

Denbora-irismena 12 hilabetekoa izango da, Esparru Akordioa sinatzen den egunetik. Hala ere, Esparru Akordioan oinarritutako kontratuek hasierako denbora-irismena luzatu dezakete. Esparru Akordioan oinarritutako kontratu horiek Esparru Akordioa sinatu eta 12 hilabeteko epean esleitu behar dira. SPRIk hala eskatuz gero, epe hori 2026ko ekainaren 30era arte luza daiteke.

3. EGINGO DIREN JARDUEREN HELBURUAK ETA DESKRIBAPENA

3.1. Helburua

Esparru Akordioa gauzatzea eta Laguntza Programaren enpresa onuradunei "Zibersegurtasuneko Gaitasun Digital Profesionalen" sistema bat ezartzeko zerbitzuak emateko SPRIk behar dituen Zerbitzuak gauzatzea da helburua.

3.2. Kontratuaren xede diren jarduerak

Laguntza Programaren enpresa onuradunetan zibersegurtasunaren arloko IKANOS metodologia aplikatzeko gauzatu behar diren zeregin guztiak aginduko zaizkie esleipendunei. Hauek izango dira, gutxi gorabehera:

a- Laguntza Programaren enpresa onuradunarekin harremana:
- Aipatutako enpresaren helburuak ezagutzea.
- Aukera arloak identifikatzea ziberseguratsun esparruan.
- Diagnostikoaren egitura zehaztea.

b- Sarbidearen diseinua:
- Sailen, profilen, profesionalen kopurua.
- Erabiltzaileak identifikatzea.
- IKANOS plataformarako sarbidea diseinatzea.

c- Komunikazioa erabiltzaileekin:
- Helburuak komunikatzea.
- Parte hartzeko motibazioa.

d- Datuen analisia:
- Txosten kuantitatiboak.
- Txosten kualitatiboak.

e- Hobetzeko proposamena:
- Zibersegurtasuneko Gaitasun Digitalen mapa sortzea.
- Diagnostikoan oinarrituta prestakuntza diseinatzea.
- Profil digital profesionalaren bilakaera.

f- Laguntza Programa hedatzeko ekintzak.

Esparru Akordioan oinarritutako kontratuak gauzatzean, Zerbitzuak bi hizkuntza ofizialetan emango direla bermatu beharko da, Laguntza Programaren enpresa onuradunak prestazioa bi hizkuntzetako edozeinetan egitea eskatzen duen kasu

guztietan. Halaber, ekintza guztietan hizkuntzaren erabilera eta irudien tratamendu ez sexista egingo duela bermatuko du kontratistak. Hori guztia, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 DEKRETUAn eta Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan aurreikusitakoaren arabera.

Hizkuntza-koofizialtasunarekin eta hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexistarekin lotutako betebeharrak betetzea ezinbestekoa eta funtsezkoa da Zerbitzua ongi emateko. Hortaz, Esparru Akordioan oinarritutako kontratuetako bakoitza eta Esparru Akordioa bera gauzatzeko funtsezko baldintzak dira, eta ez betetzeak (hau da, Zerbitzu bat hizkuntza ofizialetako batean ez ematea, onuradunak hala eskatu ondoren; edo hizkuntzaren eta irudien erabilera ez bat etortzea Emakumeen eta Gizonen Benetako Berdintasunari buruzko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak ezarritakoarekin) honako ondorioak izan ditzake:

- Kontratuari dagokion zenbatekoaren % 10era arteko zigorra jasotzea, hizkuntzaren eta irudien erabilera ez sexistaren baldintza bete ezean.
- Kontratua suntsiaraztea, kontratua esleitu zaion kontratistak ezin badu zerbitzua Laguntza Programaren onuradunak eskatutako hizkuntza ofizialean eman.

4. ESKATZEN DIREN LANTALDEA ETA PROFIL PROFESIONALAK.

Lizitatzaileek beren proposamen teknikoan eskaintzen duten lantaldeak langile kualifikatuak izan beharko ditu, eta Plegu honen 3. atalean identifikatutako arloetako teknikari espezialistek osatuko dute. Bereziki, proposatzen den lantaldeak baldintza hauek bete beharko ditu, gutxienez:

a- Eman beharreko Zerbitzuen arduradun orokorra eta SPRIko arduradunaren solaskidea izango den pertsona bat izendatzea (proiektuaren aholkulari burua), nahikoa ezagutza eta esperientzia dituena plegu honen xede diren lanen antzekoetan, hau da, zibersegurtasunaren, prestakuntzaren, giza baliabideen eta/edo zibersegurtasuneko gaitasun digitalen arloetan (zehazki, zibersegurtasunari eragiten dioten DIGCOMP ereduaren 5 gaitasun-blokeetako arloetako ezagutzak),eremu hauek jorratzen dituztelarik: zibersegurtasuna posta elektronikoaren erabileran, nabigazio segururako gaitasun digitalak, gailu elektronikoak babesteko zibersegurtasuna, datu pertsonalen eta pribatutasunaren babesa, eduki faltsuen identifikazioa eta ongizate digitalaren babesa).

b- Aurreko 3. atalean deskribatutako lanak egiteko, proiektuaren aholkulari buruaz gain, gutxienez beste 2 pertsonako lantalde bat behar da (2 aholkulari aditu espezialista), zibersegurtasunaren, prestakuntzaren eta/edo zibersegurtasuneko gaitasun digitalen arloan (zehazki, DIGCOMP ereduaren 5 gaitasun-blokeetako arloetako ezagutzak eta honako eremu hauek jorratzen dituztenak: zibersegurtasuna posta elektronikoaren erabileran, nabigazio segururako gaitasun digitalak, gailu elektronikoen babeserako zibersegurtasuna, datu

pertsonalen eta pribatutasunaren babesa, eduki faltsuaren identifikazioa eta ongizate digitalaren babesa) esperientzia dutenak.

c- Proposatutako lantaldeko pertsona batek, gutxienez, gai izan beharko du Gaitasun Digital Profesionalen Laguntza Programaren enpresa onuradunei Zerbitzua euskaraz emateko, horiek hala eskatzen dutenean. Hortaz, proposatutako lantaldeko kide batek, gutxienez, euskarako C1 maila edo baliokidea duela ziurtatu behar da eskaintza teknikoan.

d- SPRIn kontratuaren ardura duenak zuzenean gainbegiratuko du esleipendunaren lantaldeak egindako lana.

SPRIk kontratistari iradoki ahal izango dio Zerbitzuetan jende gehiago sartzea unean uneko beharren arabera, betiere haien profilak lantaldean proposatutako pertsonen antzekoak badira. Kontratistak iradokizuna baloratzeko konpromisoa hartuko du.

Nolanahi ere, lantaldeak, gutxienez, profesionalen profil hauek izan behar ditu:

- Industria Ingeniaritzan, Ingeniaritza Informatikoan, Telekomunikazioen Ingeniaritzan, Fisikan, Matematikan, Lantaldeen Kudeaketan edo baliokideetan goi-mailako prestakuntza duen pertsona bat, proiektuaren aholkulari burua eta SPRIren solaskide nagusia izango dena.

- Industria Ingeniaritzan, Ingeniaritza Informatikoan, Telekomunikazioen Ingeniaritzan, Fisikan, Matematikan, Lantaldeen Kudeaketan edo baliokideetan goi-mailako prestakuntza duten bi pertsona, aholkulari aditu espezialistak izango direnak.

Proposatutako lantaldeko kideek gutxienez honako esperientzia hau izan beharko dute, eta jarraian zehaztutako funtzioak bete behar dituzte:

Profil profesionala	Rolak eta esperientzia-urteak
1 proiektuaren aholkulari buru	Aholkularitzan eta proiektuen kudeaketan esperientzia izatea, eta gutxienez 5 urteko esperientzia izatea zerbitzu honen xede den arloan. Lidergoa: Diziplina anitzeko taldeak gidatzeko eta proiektuak zuzentzeko gai izan behar du, sorreratik ezarpeneraino. Kudeaketa-trebetasunak: Proiektuak kudeatzeko trebetasun sendoak izan behar ditu, plangintza, baliabideen esleipena, arriskuen kudeaketa eta aurrekontua barne, eta SPRIko

	taldearekin proiektua deskargatzeko trebetasunak izan behar ditu. Komunikazio-trebetasun bikainak: Bezeroekin, barne-ekipoekin eta beste stakeholder batzuekin eraginkortasunez komunikatzeko gai izan behar du. Emaitzetara bideratua: Profil horrek emaitzetara bideratutako ikuspegia izatea eta ezarritako epe eta aurrekontuen barruan proiektuaren helburuak betetzeko gai izatea espero da. Gaitasun analitikoa: Arazo konplexuak aztertzeko eta horiek konpontzeko irtenbide eraginkorrak garatzeko gai izan behar du.
2 aholkulari aditu espezialista	Gutxienez 3 urteko esperientzia aholkularitzan proiektuarekin lotutako arlo espezifikoan. Trebetasun teknikoak: Ezagutza tekniko sendoa izan behar du bere espezializazio-arloan, eta ezagutza hori SPRIrekin zerbitzua gauzatzean sortzen diren arazoak konpontzeko aplikatzeko gai izan behar du. Autonomia: Esleitutako zereginetan modu autonomoan lan egin ahal izatea espero da, nahiz eta esleipendunak eta SPRIk osatutako taldeetan eraginkortasunez lagundu ahal izango duen. Komunikazio-trebetasunak: SPRIko taldearekin argi eta garbi komunikatzeko gai izan behar du, ahoz zein idatziz. Moldagarritasuna: Lan-ingurune desberdinetara egokitzeko gai izan behar du, eta malgua izan behar du bere ikuspegian, proiektuaren erronkei heltzeko.

Gutxieneko taldeak osatzeko, esleipendunak baldintza hauek bete beharko ditu: kontratua behar bezala gauzatzeko behar dituen langileak jarri beharko ditu, eta indarrean dagoen legerian gaitasun tekniko eta profesionalari buruz jasotako eta Plegu honetan eskatutako baldintza orokor eta espezifikoak bete beharko dituzte; izan ere, giza baliabideak faktore erabakigarria dira zerbitzuaren kalitatean. Kontratuak irauten duen bitartean kontratua garatzeko behar diren pertsonek atxikita dauden profilaren araberako curriculum-maila izango dute.

5. IKUSKAPENA ETA ZERBITZUAREN KONTROLA

Eman beharreko Zerbitzuak SPRIren Eraldaketa Digitalaren Sailak gainbegiratuko ditu, eta bereziki, kontratuaren arduradunak, eta kontratatutako lanen garapen egokia egiaztatzeko beharrezkotzat jotzen dituen azalpenak eta informazioa eskatu ahal izango ditu.

6. HAUTATUTAKO KONTRATISTEN ARTEAN OINARRITUTAKO KONTRATUAK ESLEITZEA

Esparru Akordioan oinarritutako kontratuak Laguntza Programaren onuradunak haren eskarian aukeratutako enpresa kontratistari esleituko zaizkio.

Horrekin lotuta, hautatutako kontratista bakar batek ere ezingo ditu 252.000 eurotik (BEZ gabe) gorako Zerbitzuak gauzatu. Zenbateko hori gainditzen denean, Laguntza Programaren onuradunak beste kontratista bat aukeratu beharko du lizitazio honetan oinarrituta hautatutako kontratisten artean.

Laguntza Programako onuradun bati Zerbitzu bat emateko aukeratutako kontratista batek inola ere ezin dio uko egin Zerbitzua gauzatzeari; hortaz, SPRIk eskatutako Zerbitzu guztiak emateko betebeharra du.